

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK



Goizero, adineko jende ugari ikus daiteke Ollarganeko parketik paseatzen, eta, horiez gain, kirolariak eta Pagasarrirako bidean doazen mendizaleak ere ageri dira sarritan. ARCAZIAXAK MIKEL CARRAMIÑANA

Hirien arteko **oasi orlegia**

Bilbo, Arrigorriaga eta Basauri banatzen dituen berdegune ederra ezkutatzen du Ollargan parkeak.

MIKEL CARRAMIÑANA
Arrigorriaga

Merkataritza gunehandak zein etxebizitzak eraikitzeko lurzoru berriak beharrezkoak omen direlako, Bizkaiko hiriek gero eta eremu gehiago kentzen diote naturari. Bilbon, esate baterako, eraikin berriak hartuko duen lurzoru gutxi gelditzen da, eta, horregatik, inguruan dauden mendira jotzen dute hondamakinak. Zazpikaleetatik gertu dago adibiderik hobena, duela urte gutxi mendixka bat besterik ez zen lekuan, egun, milaka biztanle hartzen dituen Miribilla auzoa sortu dute. Hiriko muga bilakatu den Miribilla da Ollargan parketik ikus daitezkeen Bilboko auzoetarikoa bat, Santutxu, Abusu eta Bolueta dira besteak.

Mehatzeta eta Montefuerte izenekin ere ezaguna den ingurua hiru hiriz inguratuta dago, Bilbo,

Basauri eta Arrigorriaga baititu aldamenean. Berez, azken horri dagokio Ollarganeko eremua, baina parkearen ardura Bizkaiko Foru Aldundiak dauka. Edonola ere, bitxia da 420.000 biztanleko hiriguneak ondoan dituen berdegunea topatzea, are gehiago industriaren garai grisak ezagutu zituzten hiriak direla kontuan hartuta.

Donostiatic Bilborako errepideetik ere ikus daiteke Ollargan parkea, Illunbeko landak deritzonak batez ere, Bizkaiko armari handi bat belarraren gainean ageri dutelako, hain zuzen ere. Autoz bertaratzeko aukerak badira ere, Boluetatik Basaurirako bidean, esate baterako, herritar gehienak oinez heltzen dira bertara. Askok metro edo tren geltokiak erabiltzen dituzte joateko, horretarako aukerarik errazena Renfeko Bilbo-Orduña ibilbideak eskaintzen du, Ollargan auzoko etxebizitzetan baitauka geldiunea. Euskotren eta Metroko Boluetako geltokiak ere, parkera joateko baliagarriak dira.

Egunero, ehunka lagun biltzen dira parkean paseatzeko edo kirola egiteko asmoz. Adineko jendea da, batez ere, parkean zehar ibiltzen ikus daitekeena, baina asko-



Bolueta sarbideetik atari eder honekin egiten dute topo ibiltariak.

Arrigorriagako Udalak 50 urtez laga dio Ollargan parkeko kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiari

tarikoak dira arnasa hartzeko bertaraten direnak, hiritik ihes egiteko aukerarik hurbilenetakoa eskaintzen baitute Ollarganeko berdeguneek. Udako hilabeteetan,

hondartza maite ez dutenen solariuma bilakatzen dira bertako landak, autobideak inguruan badira ere, autoen zarata urrun entzuten delako. Lasaitasuna da nagusi parkean, edo hala zen iraganean, urteotan bisitari zaratsutsuak agertzen hasi baitira handik, motor, *quad* eta bestelako ibilgailuekin oinezkoen bideetatik aritzen direnak. Salaketa ugari egin dituzte ibiltariak, baina Bizkaiko Foru Aldundiak autoen sarrera gelditzeko hesiak baino ez ditu jarri.

MENDI MAGALEAN. Malmasin (361 metro) mendira igotzeko biderik errazena eskaintzen du Ollarganeko eta, bidean, 1981. urtean aurkitu zituzten Erdi Aroko gotorlekua izandakoaren aztarnak ikus daitezke. Behealdean, berriaz, garai bateko meategietako arrastoak ere ageri dira, trenbideetatik gertu. Bertatik lortzen zuten meatzariak Boluetako industria hornitzeko mea. Erabat desagertu da orain Santa Ana lantegia aintzindari izan zuen industrializazioaren iraultza.

Duela urte batzuk, 2004an, Bizkaiko Foru Aldundiak parkea atontzeko lanak hasi zituen, besteak beste, bideak egin, arbola berriak landatu, urmaelak jarri eta hegaztientzako ehun habi prestatu zituzten. Arrigorriagako Udalak 50 urtez laga dio Bizkaiko Aldundiari lurzoruen kudeaketa eta, hartara, erakunde horren